



UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDOIA



PELIKULA IKUSTERA JOAN AURRETIK IRAKASLEAK EGITEKO LANA

Izenburua - Talde teknikoa
Fitxa teknikoa - Fitxa artistikoa

Zuzendariei buruz

Sinopsia

Nola eraikitzen da Handia
filmeko erraldoia?

Zinemaren historia pixka bat.
Efektu bereziak: George Méliès
zinemagileari omenaldia

Proposamen didaktiko
hau lantzeko aholku
metodologikoak



PELIKULA IKUSTERA JOAN AURRETIK IKASLEEKIN EGITEKO LANA

Filmaren azala eta
izenburutik abiatuta
elkarriketarako gida

Giza Eskubideen Deklarazio
Unibertsalari errepasoa



PELIKULA IKUSI ONDOREN IKASGELAN EGITEKO LANA

Pelikula hitz batean

Pertsonaien deskribapena

Gidoiari buruz

Elkarriketa sustatzeko
proposamenak

Ariketa: Jon Garañori
egindako elkarriketa ikusi.

Ariketa: Gauzak beste
perspektiba batetik
begiratuta, desberdin
ikusten dira?



**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IRAKASLEAK
EGITEKO LANA**

IZENBURUA


H A N D I A

TALDE TEKNIKOAK

ZUZENDARITZA
GIDOIA
EKOIZLE ERAGILEAK

EKOIZLEAK
MUSIKA
ARGAZKI ZUZENDARITZA
EDIZIOA
ZUZENeko SOINUA
SOINU DISEINU ETA EDIZIOA
ZUZENDARI ARTISTIKOA
JANTZIAK
ILE-APAINKETA ETA MAKILAJEA
ZUZENDARI LAGUNTZAILEAK

AITOR ARREGI ETA JON GARAÑO
ANDONI DE CARLOS, JOSE MARI GOENAGA, AITOR ARREGI ETA JON GARAÑO
FERNANDO LARRONDO (AUNDIYA FILM, AIE),
JOSE MARI GOENAGA (MORIARTI PRODUKZIOAK, S.L.),
NEREA RODRÍGUEZ (IRUSOIN S.A.) ETA KOLDO ZUAZUA (KOWALSKIFILMS S.L.)
XABIER BERZOSA, IÑAKI GOMEZ, IÑIGO OBESO
PASCAL GAIGNE
JAVI AGIRRE ERAUSO
LAURENT DUFRECHE ETA RAÚL LÓPEZ
IÑAKI DÍEZ
XANTI SALVADOR
MIKEL SERRANO
SAIOA LARA
AINHOA ESKISABEL ETA OLGA CRUZ
TELMO ESNAL ETA AITOR VITORIA



FITXA ARTISTIKOA

JOAQUÍN ENEKO SAGARDOY
MARTIN JOSEBA USABIAGA
ARZADUN IÑIGO ARANBURU
MARÍA AIA KRUSE GOENAGA
ANTONIO RAMÓN AGIRRE

FITXA TEKNIKOAK

PARTAIDEAK
LAGUNTZAILEAK
HIZKUNTZAK
IRAUPENA
BANAKETA ESPAINIAN
NAZIOARTEKO SALMENTAK
ESTREINALDI DATA

ETB, TVE, EUSKALTEL ETA FILM FACTORY ENTERTAINMENT
ICAA, EUSKO JAURLARITZA ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
EUSKARA, GAZTELANIA, FRANTSESA ETA INGELESA
114 MIN
A CONTRACORRIENTE FILMS
FILM FACTORY ENTERTAINMENT
URRIAK 20 (2017)



**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IRAKASLEAK
EGITEKO LANA**

ZUZENDARIEI BURUZ

JON GARAÑO (DONOSTIA, 1974)



Kazetaritza eta Publizitatea ikasi zuen UPV-EHUn eta zinema Saroben eta San Diegon (AEB). Moriarti produkzio-etxearen sortzaile-kideetako bat izan zen 2001ean eta bertan jardun du zuzendari, produktore eta gidoigile gisa.

Bere film laburrak 100 lehiaketatan baino gehiagotan sarituak izan dira, eta hamabost herrialdetan baino gehiagotan eman dira bere telebistarako dokumentalak. 2010 urtean “80 Egunean” filma zuzendu eta idatzi zuen. Film honek nazioarteko 100 zinemalditan baino gehiagotan parte hartu zuen eta 30 saritik gora lortu zituen. Dena den, egun arte bere filmerik entzutetsuena, 2014 urtean idatzi eta zuzendutako “Loreak” da.

AITOR ARREGI (OÑATI, 1977)



Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatu ostean, Aitorrek ere zine ikasketak egin zituen Sarobe Arte Eszeniko Gunean. Jon Garaño bezala, Moriarti produkzio-etxearen sortzaile-kideetako bat izan zen 2001ean. Gidoilari eta zuzendaritza lanetan aritu zen “Sahara Marathon” dokumentalean, “Glup” eta “Cristobal Molon” animazio filmeetan zuzendari eta telebistarako hainbat proiektuetan lan egin du. Horrez gain, film laburretan ere aritu da zuzendari edo gidoilari funtzioetan, besteak beste “Zarautzen erosi zuen” laburrean, zeina Clermont-Ferrand-eko zinemaldi ospetsuan lehiatzeko hautatua izan zen. Hala ere, Aitorren lanik esanguratsuenak “Lucio” dokumentala (Goya sarietan dokumental onena bezala izendatua izan zena) eta “Loreak” dira. Azken honetan gidoilari eta ekoizle eragile izan zen.





**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IRAKASLEAK
EGITEKO LANA**



SINOPSISIA

Lehen Karlistaldian borrokatu ostean, Martin Gipuzkoako bere etxera itzuliko da, eta han, harrituta, bere anaia Joakin ohi baino askoz ere handiagoa dela aurkituko du. Mundu osoak lurreko gizon handiena ikusteko ordaindu nahi izango duelakoan, bi anaiek bidaia luze bati ekingo diote, Europan zehar. Bidean, anbizioak, diruak eta ospeak betirako aldatuko dute familiaren patua. Benetako gertakarietan oinarritutako istorio bat.

**NOLA ERAIKITZEN DA HANDIA
FILMEKO ERRALDOIA?**

Irakaslearekin galdera honen inguruko azalpen batzuk partekatzen ditugu gaia ikasleentzat erakargarria izan daitekeela ulertzen dugulako. Jon Garañok, filmaren zuzendariak, jarraian erreferentzia egiten diogun elkarrizketan argibide batzuk ematen ditu, baina atzerago joan nahi izan dugu, zinemaren historian arakatu eta honen guztiaren iturria non dagoen aurkitu eta partekatzeko.



Jon Garaño zuzendariak egindako elkarrizketan (<https://vimeo.com/259064713>) 00:18:32:00 minutuan aipatzen duen bezala, Handia erraldoia efektu berezien hainbat teknika erabiliz eraiki da.

- Efektu optikoak. Aurrez, honako pelikula hauetan erabiliak: *King Kong*, *Star Wars*, etab.
- Efektu mekanikoak. Aurrez, honako film hauetan erabiliak: *Animatronics*, *Jurassic Parc*, etab.
- Soinu efektuak. Film guztiek dituzte soinu- eta sala-efektuak.
- Makillaje-efektuak. Aurrez, honako film hauetan erabiliak: *La piel que habito*, *Freddy* etab.
- Efektu digitalak. Aurrez, honako film hauetan erabiliak: *Avatar*, *Spiderman*, *The Lord of the Rings*, etab.

Puntu hauetan aipatutako efektuez gain, *Handian* ordezko bat erabili zuten, benetako erraldoi bat; filmerako eskusiboki kontratatu zuten.

- Baina, zein izan zen zineman, efektu berezien aitzindaria? **GEORGES MÉLIÈS**



**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IRAKASLEAK
EGITEKO LANA****PROPOSAMEN DIDAKTIKO
HAU LANTZEKO AHOLKU
METODOLOGIKOAK**

Proposatzen dugun eredu metodologikoak gaitasun intelektual eta kontzientzia soziala garatzea du oinarri. Ikaslearen ezagutza, sinesmenak, aurreiritziak eta izandako bizipenak izango dira abiapuntu, modu horretan, haien interes eta beharrekine konektatuko baitugu, baina urrats bat gehiago ere emango dugu: ikaskuntza berriak barneratu. Aurrera pausu horiek ikasleek beraiek egingo dituzte taldean elkarrekin ikertuz, eta horixe izango da, hain zuzen, programa honen ezaugarri adierazgarriena, irakasleak ez baitie ezagutza zehatzik irakatsiko. Elkarrekin hausnartu, pentsatu eta hitz egin beharko dute taldearen ondorioak formulatu eta osatzeko. Irakaslearen lana taldea bideratzea izango da, elkarriketa horiek gerta daitezen beharrezko baldintzak ahalbideratzea. Horretarako, honako orrialde hauetan, hainbat baliabide eskaintzen ditugu ikasgelan elkarriketa parte-hartzailea eragiteko, eta zenbait galdera irakasleak elkarriketa sustatzeko eta gidatzeko balia ditzan. Esan beharrik ez dago, irakasle bakoitzak erabakiko duela horietako zein erabili, zein ez edota baten bat erantsi nahi ote duen. Jarduera errazteko galderen zerrenda bat aurkezten dizuegu, ikasgelan elkarriketa arakatzailerako sustatzeko baliagarri gerta daitekeena:

ARAKATU

Nola jakin dezakegu...?

Nola bila dezakegu...?

HIPOTESIAK FORMULATU

Zer azalpen izan dezake honako honek?

Zer gertatuko litzateke baldin eta...?

BESTE BIDE BATZUK BILATU

Zer beste modutan azal dezakegu...?

Zeini bururatzan zaio beste konponbide bat?

DEFINITU

Hitz hori erabiltzen duzunean, zer esan nahi duzu?

PAREKOTASUNAK ETA DESBERDINTASUNAK BILATU

Zer dute amankomunean...?

SAILKATU

Zenbat modutan sailka dezakegu?

ARRAZOIAK ESKATU

Zer arrazoi duzu honako hori esateko?

ONDORIOAK ATERA

Baieztapen hori egia bada, zer ondoriozta dezakegu?

KAUSAK ETA ONDORIOAK ERLAZIONATU

Hori gertatzen denean, zein dira ondorioak?

HITZEZKOA EZ DEN HIZKUNTZATIK HITZEZKORA ITZULI

Zer adierazi nahi du keinu horrek?

LABURTU

Hitz gutxitan azal dezakezu...?



Metodologia-proposamen zehatz honek elkarriketa du oinarri beraz; azken batean, etika biziaren trebakuntza bat da. Bizikidetzarako, pertsonen arteko errespeturako eta garapen intelektualerako beharrezko prozedurak eta jarrerak martxan jartzen dira. Era ordenatu eta sistematikoan hitz egiteak lagunduko du elkarriketa modu eraikitzailean erabiltzeko ohitura hartzen. Elkarriketa batean, beste pertsonaren iritzia eta hitz egiteko txanda errespetatzen dugu, eta entzuteko gaitasuna eta pazientzia trebatzen ditugu. Honez gain, gure iritzia argudiatzen eta gure kideek zer pentsatzen duten hobeto eta sakonago ikasten dugu; modu horretan, errazago zaigu haiek ulertzea eta haiekin enpatizatzea.



**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IKASLEEKIN
EGITEKO LANA**

**FILMAREN AZALA ETA IZENBURUTIK
ABIATUTA ELKARRIZKETARAKO GIDA**

“Handia” Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian ipiniko dute eta bertara joango gara filma ikustera. Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Sailak eta Donostia Kulturak antolatzen dute jaialdia.

- Zer dakigu pelikula honi buruz?
Aurretik zerbait entzun dugu?
- Nortzuk dira pelikulako zuzendariak?
- Zer adierazten du izenburuak?
Eta azpi-izenburuak?
- Zer esaten digu pelikularen azaleko irudiak? Zer informazio ematen digute bertan ateratzen diren gorputzek, hauen sexuak, tamainak, janzkerak, koloreek, jarrerak, itxurak, etab.?
- Zer informazio gehiago atera dezakegu pelikulako horma-iruditik abiatuta?
- Filmaren edukiari buruz hipotesiren bat egin dezakegu hemendik abiatuta?
Zer istorio mota kontatuko da?



GIZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALARI ERREPASOA

Zinemaldiaren egitarauan urteko giza eskubideekin lotutako labor eta film luze batzuk biltzen dira. Helburua, hiritarren artean bake eta bizikidetzaren kultura zabaltzea da tolerantziaren, elkartzaren, errespetuaren, aniztasunaren eta gizarte kohesioaren pedagogia eginaz.

Garrantzitsua da neska-mutilak jabetzea Giza Eskubideak ezinbestekoak direla komunitate eta pertsonen arteko harreman egonkorra eta orekatuak finkatzeko eta honetarako nahitaezkoa da hauen ezagutza izatea. Ariketa honetan, Nazio Batuek 1948an aldarrikatu zuten Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala bilatu eta artikulatuak errepasatuko ditugu. Ikasleei pelikulak zer eskubide edo eskubideei buruz hitz egiten duen pentsatzeko mandatua emango diegu.





PELIKULA IKUSI ONDOREN IKASGELAN EGITEKO LANA

PELIKULA HITZ BATEAN

Borobilean eserita irakasleak pelikula zer iruditu zaien galdetuko du eta partaide bakoitzak **hitz bat** erabiliz erantzun beharko du. Ikasleen adinaren arabera eta laguntza modura, aurrez arbelean adjektiboen zerrenda egin dezakegu guztion artean.

PERTSONAIEN DESKRIBAPENA

Borobilean eserita jarraituko dugu. Ikasleei pelikulako pertsonaiak eta pertsonaia nagusiak zein diren galdetuko diegu eta arbelean zerrenda osatuko dugu (**Joaquín, Martín, Arzadun, María, Antonio**):

- Nolakoa esango zenukete direla pertsona horiek? Bakoitzaren zein ezaugarri nabarmenduko zenukete?
- Filmean zehar aldatu egiten dira?
- Zeinek edo zerk aldarazten ditu eta zergatik?

GIDOIARI BURUZ

Irakasleak ondorengo galderak egin ditzake:

- Zeintzuk dira zuen ustez pelikulak lantzen dituen gai nagusiak?
- Zein izan da gehien gustatu zaizuen eszena? Zergatik?

Ikasleek galderei ematen dizkieten erantzunen arabera, taldean, guztion artean gai horiei buruz hitz egiten joango gara. Irakaslea galderak proposatuz joango da elkarriketa sortu eta gidatzeko. Jarraian, 'laguntasuna', 'akromegalia' - 'desberdintasuna', 'nortasuna', 'mitoak' - 'pertsonak' eta 'giza eskubide' kontzeptuei buruz eta testuinguruari buruz taldean hausnarketa egiteko proposamenak aurkezten ditugu.





**PELIKULA IKUSI
ONDOREN IKASGELAN
EGITEKO LANA**

**ELKARRIZKETA SUSTATZEKO
PROPOSAMENAK**

FAMILIA

- Nolakoa da familiako kideen arteko harremana?
Zer jarrera dute?
- Zergatik erabakitzen du aitak Martin gerrara bidaltzea?



Martinek Antonio aitari:

- ANTONIO — Joaquín, hemen geratuko haiz.
MARTIN — Zergatik ni?
ANTONIO — Zer esaten dek?
ANTONIO — Joaquín geratuko dela esan diat!
MARTIN — Baino, zergatikan ni?
ANTONIO — Entzun diat, bietako batek joan behar dik.
MARTIN — Baino zergatikan ni?
ANTONIO — Ba nik esaten detelako.
GENERALA — Nahikoa da, bestea etorriko da gukin.
Arazo dezente dauzkagu frentean eta ez ditut gehiago behar.
ANTONIO — Geldi egon!
MARTIN — Ez, ni joango naiz. Ez arduratu Joaquín.
Belaxe bueltatuko nauk, bai? eta bueltatzean bion artean
gobernaturiko dugu baserria. Ondo?

- Nolakoa da Martin eta Joaquín anaien arteko harremana? Elkar errespetatzen dute?
Elkarri laguntzen diote? Helburu komun bat dute? Zein?





**PELIKULA IKUSI
ONDOREN IKASGELAN
EGITEKO LANA**

AKROMEGLIA - DESBERDINTASUNA

- Joaquín gaixo zegoen? Desgaitasun fisikoren bat zuen?
Desgaitasun psikikoren bat zuen?
- Filmak erakusten digu XIX. mendean eta baita XX. mendean ere desberdintasuna zirko-munduarekin erlazionatzen zela. Iruditzen zaizue hori aldatu egin dela eta, gaur egun, mota horretako praktikak egiten ez direla?
- Nola jokatzeko du mediku-taldeak?
Errespetua azaltzen diete Martin eta Joaquíni?
Zer tratatu ematen die?
- Eta Isabel II.a erreginak?



TESTUINGURUA (GERRATE KARLISTAK ETA BASERRIA)

- Pelikula kokatua dagoen testuinguruaren eta garaiko gerrate Karlisten errepasoa edo informazio bilaketa egin dezakegu.
- Martin gerrara bere borondatez joan zen?
- Urte haietan, “Ameriketara joatea”, alegia, emigratzea, ohikoa zen? Zergatik?

Martinek Fernandori, frenteko kideari:

MARTIN — Hi, Fernando. Ulertzen al dek zer egiten ari gara hemen?
Ea zergatik ari gara borrokan.

FERNANDO — Egia esago diat.
Neri guzti honek ez ziaak
batere inportik. Gerra hau
bukatzeko dunian, alde egingo
diat hemendik.

MARTIN — Noa?

FERNANDO — Ameriketara.

MARTIN — Ameriketara?



**PELIKULA IKUSI
ONDOREN IKASGELAN
EGITEKO LANA**

- Filma kokatua dagoen garaiko baserrietako bizitzaren azterketa egin. Mertxe Urteaga arkeologoak idatzitako testu hau erabili dezakegu abiapuntutzat. Nola aldatu da baserrietako martxa eta bizitza gaur egungoarekin alderatzen badugu?

Bizitza eta familia-egitura baserrian. Mertxe Urteagaren eskutik (Arkeologian Doktorea)

Euskal Herri atlantikoko nekazari-guneko paisaia eraikin bereizgarria da baserria. Eraikin bakartuak dira, dimentsio handikoak, trinkoak, barruan egurrezko egitura indartsuak dituzte, eta hainbat funtzio betetzen dituzte: etxebizitza, ukuilua, lastategia, dolarea, bodega, biltegia, lantegia eta beste. Klima euritsura egokitzen dira inklinazio gutxiko teilatuarekin. Etxe-aurre nagusia Hegoaldera begira dago, eguzki-ordu ahalik eta gehienez gozatu ahal izateko. Baina baserria eraikin bat baino zerbait gehiago da, laborantza-lur, zelai eta basoak baititu, azken batean, nekazaritza eta abeltzaintza-ustiategi bat da, norberaren biziraupenari bideratua. Eta erritu batzuekin ere lotzen da; ondorioz, balio sinboliko eta espirituala duen espazioa da.

Erdi Aroan dute jatorria. Deskribatutako ereduaren adibiderik zaharrenak XV. mendekoak dira. Osorik egurrez eraikita zeuden; gehienak haritzarekin eginak. Pixkanaka, kanpoko egurrezko itxiturak harri-hormengatik ordeztu ziren, egun ezagutzen dugun itxura eskuratu arte.

Altzo 1836an

1836an, Altzoko bi auzoek, alegia, Altzo Azpi eta Altzo Muinok bakoitzak bere parrokia zuen; 1882an elkartu ziren. Ipintza baserria Altzo Azpin kokatuta dago, eta haren jatorri historikoa Olazabalgo San Salvador monasterio zaharrari lotuta dago. Monasterio hori 1025ean dohaintzan eman zitzaion Leireko monasterioari, eta, hain zuzen, gertakari hori jasotzen duen dokumentuan ageri da lehen aldiz historian Gipuzkoa izena.

Urte haietan, Altzoko populazioa baserrian bizi zen, eta gerra garaiak bizi zituzten. I. Gerra Karlista 1833an piztu zen, eta Euskal Herriko nekazaritza-girokoek Carlos María Isidoren alde egin zuten, Fernando VII.aren anaiaren alde. Aipaturiko erregearen alaba Isabel defendatzen zutenen aurka zebiltzan, baina Foruen gaia oso gogoan zuten.

Baserri gehienak errentan zituzten maizterrek, haiek lantzen baitzituzten lurak eta jabeak mantentzen, eskuratutako uztarekin. Aristokraziako zenbait familiak dozenaka baserri zituzten jabetzan eta errentak ematen zienetik bizi ziren. Baserriaren jabeak bertan bizi zirenak baldin baziren, oinordekotza maiorazkoaren arabera egiten zen: erakunde horrek ez zuen uzten ondarea oinordekoen artean zatitzen; lehenjaioaren esku geratzen zen dena. Baserriko bizitza gogorra zen; biziraupena familiako kide guztien lanaren mende zegoen, baita haur eta zaharren mende ere. Emakumeek zeramaten pisurik handiena, etxe-barruko nahiz -kanpoko lanez arduratzen baitziren. Ez zen ia dirurik erabiltzen, trukea zen nagusi; ez zen inolako luxurik.





**PELIKULA IKUSI
ONDOREN IKASGELAN
EGITEKO LANA**

BANAKOAREN NORTASUNA ETA TALDE NORTASUNA

- Besteek nola ikusten gaituzten eta guk nola ikusten dugun geure burua, bizitza baldintzatu dezaketen pertzepzioak izan daitezke?




Martinek Joaquíni:

- MARTIN — Diru asko irabaziko degula esaten ari zaiok, hi jende aurrean erakusten badiagu.
- JOAQUÍN — Ni erakutsi?
- MARTIN — Hi nolakoa haizen... Joaquín, utzi esplikatzen.
- JOAQUÍN — Zertako erakutsi nahi nauzue?
- MARTIN — Haundia haizelako Joaquín, oso haundia. Argi hitz egin dezagun. Ikusi behar huen jendea hire abarkei begira.
- JOAQUÍN — Ixo! Ez diat ezertan jakin beharrik nitaz barrez ari zaretela.
- MARTIN — Zer esaten ari haiz? Inork ez dik barre egiten hire kontura.
- JOAQUÍN — Bai. Tolosan bertan.
- MARTIN — Joaquín, denok egin behar izaten dizkiogu gustoko ez ditugun gauzak.
- JOAQUÍN — Nahiko. Utziok pakean.

Joaquínek Arzaduni:

- JOAQUÍN — Arzadun, zergatik ez diak neri begiratzan? 1:05:30:00.
- ARZADUNI — Zer?
- JOAQUÍN — Ez diazula inoiz begiratzan. Beti nire aitari edo Martini hitz egiten diezu. Niri ez didazu inoiz ezer esaten. Ikusten, berriro berdin... orain hitz egiten ari dana ni naiz.
- ARZADUNI — Tira, hitz egingo degu lasai beste batean honi buruz, e?
- JOAQUÍN — Hemen gauza batzuk aldatzen hasi behar dute. Hemendik aurrera, EZ NAIZ EZKUTATUKO.
- MARTIN — Hitz egin genun hortaz, Joaquín.
- JOAQUÍN — Eta nire diru parte a neri ematea nahi diat.
- ARZADUNI — Neria ere Joaquíni emon.

- Joaquínek onartzen du edo behartuta sentitzen da bere burua erakustera? Zein da arrazoia? 00:27:21
- Zuen ustez, nola sentitzen da?





**PELIKULA IKUSI
ONDOREN IKASGELAN
EGITEKO LANA**

MITOAK ETA PERTSONAK

- Pertsona bat mito bilakatzen denean, esan dezakegu informazioaren deformazio bat dela? (Fake News egungo kontzeptua)
- Zergatik izan dezakegu pertsonok kondairak eta mitoak sortzeko joera? Zer azalpen izan dezake errealitate honek?
- Zer egin zuen Joaquínnek mito edo kondaira bihurtzeko?

Jarraian, pelikulako zuzendariak gai honen inguruan egindako hausnarketa jasotzen dugu. Alderatu beraiek egiten duten gogoeta zuek emandako erantzunekin:



Mitoaren egia. Filmeko zuzendariak idatzia.

Nahiz eta bere garaian “Altzoko Handia” pertsonaia ospetsua izan zen, filmerako dokumentazio lanak hasi genituenean zera ikusi genuen: ez zegoela kasik honen gertaerei buruzko informaziorik. Are gehiago, gure sorpresarako ez zegoen berari leporatzen zaizkion pasadizo desberdinen inguruko froga fidagarriarik, ez bada ahoz-ahoko transmisio deformatzaileari esker gure egunetara iritsi zaiguna. Bere istorioa denboraren joanean aldatzen joan da, eta batzuk sekula ez zela existitu pentsatzera iritsi dira, euskal mitologiaren beste pertsonaia bat izango balitz bezala. Baina honek ez zuen gure

motibazioa ahuldu. Alderantziz, aukera polit bat ikusi genuen situazio horrek eraginda: izan ere, ez al da ba nahasketa hori mito guztiak eraikitze erabiltzen den materiala? Guztiz benetakoak ziren gertakari batzuetaz aritzeaz baino, gure asmoa kontakizun horien atzean izan daitezkeen gaien inguruko gogoeta bat egitea izan zen. Ahalik eta modu zintzoenean, benetako elementuak fikziozkoekin uztartuz. Oakley Hall idazlearen esanetan “Fikzioaren zeregina ez da gertakari errealak jasotzea, baizik eta egia bilatzea”. Eta horixe bera egiten saiatu gara. Egia horien artean honako hau dago gure ustez:

gizakiak bere mito propioak eraiki eta transmititu behar dituela. “Handia” filmak gizarte orok kondairak sortzeko duten behararen inguruan hausnartu nahi du. Heroiak eraikitze joera ukazina du gizakiak, edozein momentutan eta edonon. Oraintxe bertan, munduaren edozein bazterretan, sortzen eta hazten ari dira euren errealitate sozial eta politikoaren ondorio diren mitoak. Miguel Joaquín Eleizegik ez zuen karisma berezirik eta bere bizitzan zehar ez zuen aparteko ezer lortu, baina bere pertsonaren baitan gaurko egunera arte irauten duen mito bat eraiki zen. Arrazoi bakarra: gainontzeko gizakiak baino zentimetro batzuk gehiago neurtzen zituela zen. Hau da, askotan mitoak ez dira sortzen eurek egindako lorpenengatik, baizik eta haiek mitifikatzen dituzten pertsonen beharregatik. Azken finean, istorio honek, zer den erreal eta zer ez den banatzen duen marra ahul horri buruz hitz egiteko aukera ematen digu. Izan ere, mitoak hazten eta hedatzen baitoaz, Joaquínnek gorputza bere 43 urtetan zehar hazi zen moduan. Gure filma transmisio katearen azken kate-begia baino ez da. Erraldoiaren hazkunde prozesuaren azken zentimetroa.





**PELIKULA IKUSI
ONDOREN IKASGELAN
EGITEKO LANA**

GIZA ESKUBIDEAK

Pelikula ikustera joan aurretik, ikasleei eskatu genien Giza Eskubideen Hitzarmena kontuan izateko eta pentsatzeko bertan zein artikuluko jorratzen diren. Gai hau berreskuratuko dugu.

Zenbat aurreratu dugu Giza Eskubideei dagokionez 1837tik? Adibidez:

- Akromegalia bezalako gaixotasun arraroak dituzten pertsonak aintzat hartzea eta errespetatzea.
- Aukera berberak izatea intelektualki gara daitezen.
- Desgaitasunen bat duten pertsonak ikusgai bihurtzea.
- Desgaitasunen bat duten pertsonak lan-munduan sartzea.
- ...

ARIKETA 1

Jon Garañori egindako elkarrizketa ikusi eta ondoren, denon artean, egin dituen aipamen guztietatik gehien harritu zaituena zer izan den komentatu.

<https://vimeo.com/259064713>

- 00:00:11:04 **Nola sortu zen pelikula egiteko ideia?**
- 00:03:48:03 **Zeri buruzkoa da pelikula?**
- 00:08:40:17 **Zein gai lantzen ditu pelikulak?**
- 00:15:11:00 **Erraldoia eraiki**
- 00:20:09:12 **Euskal Herrian grabatua.**
- 00:23:26:05 **Dekoratuak. Efektuak.**
- 00:24:34:05 **Pertsonaia erreala eta asmatutako istorioa: Fikzioa eta errealitatea**

ARIKETA 2

Sakelako telefonoak selfie-makiletan jarrita, Joaquínen alturatik nola ikusiko litzatekeen simulatu, 2 metro baino goragotik. Talde batek "Handia" irudikatuko luke eta besteak, altuera estandarreko norbait. Nola ikusten dira gauzak ikuspegi aldaketarekin?

